

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 265.000 euro baino gehiagorekin osatu du Estatuak terrorismoaren hamar biktimei ordaindutako kalte-ordainak

Ematen diren era honetako lehen laguntzak dira, Administrazio Zentralak ordaindutako zenbatekoak % 30ean handitzen duen foru-lege baten babesarekin

Martes, 07 de enero de 2014

Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko terrorismoaren hamar biktimeentzat 265.370 euroko ordainketa onartu du Estatutik jaso duten kalte-ordainak % 30arekin osatzeko

[Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Foru Lege](#)aren babesean ematen diren era horretako lehen laguntzak dira horiek, igoera hori aurreikusten duena. Ordaindu ahal izateko, Gobernu Zentralak [Terrorismoaren Biktimei Aitorpen eta Babes Integrala emateko estatuko lege](#)aren [arazko garapena](#) onartzeko zain egon behar izan du Nafarroako Gobernuak, eta arau horretan aurreikusitako kalte-ordainak eman zitzaizkien.

Biktimeetako batek heriotzagatik jaso du kalte-ordaina, seik ezintasun iraunkor osoagatik eta beste hiruk ezintasun iraunkor absolutuagatik. Zehazki, haietako bakoitzak 6.723,32 eurotik 58.826,24 euro arteko osagarria jasoko du. Zehatzago esanik, heriotzaren kasuan laguntza 33.530,16 €-koa da; ezintasun iraunkor osoagatik 15.575,71 €-ko bi laguntza onartu dira, eta 6.723,32 €, 31.716,91 €, 12.119,29 € eta 25.581,49 €-ko beste lau, hurrenez hurren. Ezintasun iraunkor absolutuaren kasuan, 40.570,50 €, 58.826,24 € eta 25.151,42 €-ko hiru laguntza dira.

Terrorismoaren 54 biktimek egin zuten epe barnean Nafarroako Gobernuak emandako laguntza horiek jasotzeko eskaera. Osagarriak jasoko dituzten hamarrak dagokion dokumentazio guztia aurkeztu duten lehenengoak dira. Gainerako ordainketak kasu bakoitza aztertu ondoren egingo dira eta espedientea osatu dela egiaztatzen ondoren.